

AISIA 

Sagardo Eguna

 2016/06/18
 18:00-21:30.

 HENDAIA
 LAPURDI


AIPAMENAK

Ekainaren 18an, Sagardo Eguna ospatuko da Hendaian. Arratsaldeko 18:00etatik 21:30era, 11 sagardotegitako sagardoa egongo da aukeran eta herriko 11 taldek hartuko dute parte.

Balea elkarteak berreskuratu eta antolatu du Lapurdiko Herrira Sagardo Eguna, garai batean egun honekin sortzen zen festa giroa berriro ere herrira ekartzeko helburuarekin.

Parte hartuko duten sagarnotegiak ondoko hauek dira: Antxon Borlo (Hendaia), Abbadia (Hendaia), Kamino Berri (Urruña), Urbistondo-Ihitia (Sara), Eztigar (Beltxu), Beltzenia (Urruña), Petritegi (Astigarraga), Iparragirre (Hemani), Satkota (Aia), Izeta (Aia) eta Ola (Irun).

Hendaiaira inguratzen denak sagardo desberdinak dastatzeko aukera izango du. Horrez gain, sagardotegi bakoitzarekin herriko talde bat izango da pintxoak banatzen: AEK, Ikastola, ACE, Txikitxoko haurtzaindegia, Hendaitz, Lorsires-CPIE Littorale Basque, Presoak, Baleak, Hendaierak, Reciclarie eta Akelarre.

Sagardo dastatzea 18:00etan hasiko bada ere, festa giroa 17:00etatik aurrera martxan izango da Hendaiaiko Republika plazan, haurrentzako jolasekin, Amets Arzallus eta Unai Agirre bertsolariekin, Hendaiaiko Txalaparta elkartearen emanaldiarekin eta gaiteroekin. Jarraian, sagardo dastatzea eta pintxoak izango dira Republika plazan.

ORDUA

18:00-21:30.

KOKAPENA

 Rue de Subernoia
 Republika plaza
 Hendaia
